

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onespena ematea udalaren 11. zerga ordenantzaren 1. eranskinari, zeinak Amurrioko San Anton azokako saltokiekin jabari publikoa aprobetxatzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen

Udalbatzak 2020ko ekainaren 25ean egindako bilkuran hartutako erabakiaren aurka erreklamazioak aurkezteko epea igaro da. Erabaki hori 2020ko uztailaren 6ko 75 zenbakiko ALHAOn argitaratu zen, eta Amurrioko San Anton azokan saltokiak jartzeagatik jabari publikoa aprobetxatzeagatik tasa arautzen duen 11 zenbakidun udal zerga ordenantzaren 1. eranskinaren aldaketaren behin-behineko onespeneri buruzkoa da (espediente zenbakia: 2020/9/S062), erreklamaziorik aurkeztu ez denez, eta Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testuategina onesten duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 17-3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, erabaki hori behin betiko egiten da, eta hori argitara ematen da, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70-2 artikuluan eta aipatutako legearen 17-4 artikuluan xedatutako ondorioetarako. Ordenantza horrek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta honako hau dio hitzez hitz:

UDALAREN 11. ZERGA ORDENANTZAREN 1. ERANSKINA, AMURRIOKO SAN ANTON AZOKAKO SALTOKIEKIN JABARI PUBLIKOA APROBETXATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUENA

1. artikulua. Tarifak

Noizbehinkakoak ez diren saltokiak enkante publikoaren bidez adjudikatuko dira (eskaintzak gutun-azal itxian aurkeztuta); ondoren azalduko diren tarifak lizitazioaren gutxienezko prezioak dira:

1. Fruta salmentakoak ez beste saltoki guztiengatik erabiltzaile bakoitzak egunean 2,56 euro ordaindu beharko ditu m²-ko.

2. Fruta salmentako saltokiak ordaindu beharreko tasa egunean 2,93 euro m²-ko izango da.

2. artikulua. Nola kalkulatu okupatutako azalera

Postuak okupatzen duen azalera kalkulatzeko haren luzera zabaleraz biderkatu behar da.

3. artikulua. Salbuespenak

Ostiraletan Kultura Etxearen aurrean egiten den baserritarren asteko azokako postuengatik ez da ordaindu beharko tasa hau. Salbuespena aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da Udalarri eskaera aurkezte; eskaerarekin batera dena delako postuari dagokion indarreko udal baimena aurkeztu beharko da.

4. artikulua. Sortzapena

Aprobetxamendurako edo erabilerrako baimena ematen den unean sortuko da eranskin honetan araututako tasa ordaindu beharra, aprobetxamendua edo erabilera berria bada, eta gainerako kasuetan urte naturaleko lehen egunean.

Udal lizentziarik eduki ezean, erabilera edo aprobetxamendua hasten den unean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra, bidezko zehapena gorabehera.

Xedapen iragankorra. Aldi baterako eteten da Amurrioko San Anton azokan saltokiak jartzeagatik jabari publikoaren aprobetxamendurako tasa arautzen duen 11 zenbakiko udal ordenantzaren 1. eranskinaren aplikazioa; hain zuzen ere, 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra arte.

Azken xedapena. Amurrioko San Anton azokan saltokiak jartzeagatik jabari publikoaren aprobetxamendurako tasa arautzen duen 11 zenbakiko udal ordenantzaren 1. eranskina ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta indarrean egongo da hura aldatzea edo indargabetzea onetsi arte.

Amurrio, 2020ko irailaren 14a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA